

gaz-teak




Getxo
bizi ezazu

Doako alea

356 zb.
www.getxo.eus

>> 2021eko Maiatza

GETXO UZTAILA • 5 > 12 URTE
HIRIKO
UDALEKUAK



IZENA EMATEKO EPEA


MAIATZAREN
7TIK 21ERA



Nabarmen^{tzekoak}

> Inskripzioak zabalik hiriko udalekuetan

- > Gazteentzako aholkularitza psikologikoko zerbitzua luzatu da
- > Hiru gazte getxotar EuskarAbenturan



“Getxo Ekinez 2021” programaren barruan dago eta 9.000€ ditu

Gazteentzako aholkularitza psikologikoko zerbitzua luzatu da

Gazteentzako aholkularitza psikologikoko zerbitzua urte amaierara arte luzatu da. Jarduera hori *Getxo Ekinez 2021* programaren barruan dagoen aurrekontu-zuzkidari esker abiatu zen, COVID-19aren ondorio sozioekonomikoei aurre egiteko, eta 9.000€ ditu. Zerbitzu hau, 2020ko azarotik ematen ari zen aholkularitza sexologikoaren osagarri gisa, urtarrilean hasi zen proba pilotu gisa, Getxoko 13 eta 30 urte bitarteko gazteei beren zalantzak argitzen laguntzeko, bai eta autoestimua erekin, harremanetarako segurtasunik ezarekin, tristurarekin, antsietatearekin eta izaera psikologikoko beste gai batzuekin lotutako hainbat gairi aurre egiteko ere, pandemia-egoerarekin areagotu egin baitira. Zerbitzua Algortako Gaztelekuko lokaletan ematen jarraituko da asteen behin. Zerbitzura joateko, hitzordua eskatu behar da aldezturik, mezu bat bidaliz edo 685 704 118 (Teresa) telefonozenbakira deituz eta aholkularitza@getxo.eus posta elektronikoen bidez.

Informazio gehiago: www.getxo.eus/ku/juventud.

Hiru gazte getxotar EuskarAbenturan

Hiru gazte getxotar (San Nikolas ikastolako bi eta J.C. Baroja Institutuko bat) aukeratuak izan dira EuskarAbenturaren hirugarren edizioan parte hartzeko. Hainbat entitateen laguntza (tartean Getxoko Udalarena) duen ekimenaren helburuak dira: euskararen erabilera sustatzea, Euskal Herriaren natura-ondasun eta ondasun historiko nahiz kulturala ezagutzeko eta horren transmisioa bultzatzea, eta gazte euskaldunen arteko sareak sortzea. Pandemiagatik ezarritako segurtasun neurriak direla eta, espedizioa bi txandatan egingo da: uztailearen 1etik 11ra eta uztailearen 16tik 25era, 40-60na gazterekin. Taldeari PCR eta antigeno frogak bat egingo zaio ekintzan sartu baino lehen eta banakako kanping dendetan egingo dute lo. <https://euskarabentura.eus/>

BEKAK SARIAK

* **Francisco Javier de Landaburu-Civis 2021 Saria**, Eurobasque-Europako Mugimenduaren Euskal Kontseiluak deituta, Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzendua, Europari buruzko ikerketa-lanetarako. Saria: 1.000 euro, irakasleentzat, eta 2.000 euro, ikasleentzat. Lanak aurkezteko epea maiatzaren 20an amaituko da. Argibideak: <https://eurobasque.eus/> eta tel.: 945 123538.

* **2021eko Jóvenes máshumano saria**, Fundación máshumano erakundeak deituta Injuveren laguntzarekin, 14 eta 30 urte arteko gazteentzat, baldin eta, planteatutako errorei irtenbidea ematen badiete, enpresa eta erakunde gizatiarren benetako eskaerei erantzun dieten proiektu eta ideia bideragarri eta jasagarrien bidez. Proiektuak aurkezteko: <https://premiomashumano.com/>. Aurkezpen epea: ekainaren 7ra arte.

Romoko Gaztelekuaren programazioa

Maiatza

Hilak 7, ostirala: TAILERRA: VISUAL ART
Hilak 12, asteazkena: SUKALDARITZA: SANDWICH
Hilak 14, ostirala: TAILERRA: VISUAL ART
Hilak 15, larunbata: IRTEERA: SAN MAMES
Hilak 18, asteartea: EKINTZA: OBESITATEAREN AURKAKO EGUNA
Hilak 20, osteguna: TAILERRA: ZERRIA
Hilak 22, larunbata: TAILERRA: ROBOTIKA
Hilak 26, asteazkena: TAILERRA: ZORROA
Hilak 27, osteguna: IRTEERA: ARTXANDA

Algortako Gaztelekuaren programazioa

Maiatza

Hilak 6, osteguna: ASANBLADA: EKAINEN PROGRAMAZIOA
Hilak 7, 14 eta 28, ostirala: TAILERRA: HILEKOAREN HEZKUNTZA
Hilak 8, larunbata: TAILERRA: ILE-APAINKETA
Hilak 13, osteguna: ESKULANA: BUZTINA
Hilak 15, larunbata: IRTEERA: OHE ELASTIKOAK + BOLERA (BRINCOZONE)
Hilak 20, osteguna: TAILERRA: DANTZA
Hilak 21, ostirala: TAILERRA: POLTSA PERTSONALIZATUAK
Hilak 22 eta 29, larunbata: ESKULANA: BIRZIKLATUTAKO PANEKAK (ODS)

Inskripzioak zabalik hiriko udalekuetan

Maiatzaren 7tik 21era bitartean zabalik egongo da aurre-izen-emateak egiteko epea udal Gazteria Zerbitzuak antolatutako hiri-udalekuetan parte hartzeko. Lanean ari dira jarduera hori uztailean egin ahal izateko Geroa Ikastolan, eta LHI San Ignazio eta LHI Romo ikastetxeetan.

Aurreko urteetan bezala, udalekuak bi asteko txandetan banatuta eskainiko dira: uztailearen 1etik 14ra arte eta uztailearen 15etik 28ra, 09:00etatik 17:30era. Lau egunetan, astearte eta ostegunetan, egun osoko txangoak egingo dira herritik kanpora. Behar bereziak dituzten umeei beharrezko laguntzak izango dituzte.

Izena ematea, ahal dela, online egin beharko da www.getxo.eus/gazteria helbidean. Halaber, Gazte Informazio Bulegoan ere izena emateko orriak eskuragarri izango dira.



AISIALDIA ETA TARTE LIBREAK UDAN

	EKINTZA	DATAK	ADINA	PREZIOA	HIZKUNTZA	IZENA EMATEKO EPEA	INFORMAZIOA
GAZTERIA	Hiriko Udalekuak	Uztailan	5-12 (2009-2016)	Kontsultatu	Euskara	Maiatzaren 7tik-21ra	Online: www.getxo.eus/gazteria Herritaren Arretarako Bulegoetan 944660353
KUKUPRAKA LUDOTEKA	2021-2022 ikasturtea	Irailetik maiatzera Asteko 3 txanda	2010-2016 (biak barne)	Dohainik	Euskara	Maiatzaren 13tik 21era (Online inskripzioa)	Areetako Eskoletako plaza 94 466 03 55 areetacoludoteka@getxo.eus
GAUEGUN GAZTELEKUA eta GUREGUNE GAZTELEKUA	Ekintza Anitzak	Ekaina eta Uztaila	11-17	Dohainik (txangoetan izan ezik)	Euskara eta gaztelania	Ez da beharrezko Txangoetan izan ezik	gauegungaztelekua@getxo.eus 94 466 03 56 guregunegetxotelekua@getxo.eus 94 466 00 22
GETXO KIROLAK	Udaljolasean Divertiverano Kiroletan Grand slam Igeriketa	Uztaila eta abuztuan	2015-2017 2012-2014 2007-2011 2005-2013 4-17 urteak	90€ (hamabostaldia) 85-100€ (hilabetea)	Euskara eta gaztelania	Maiatzaren 10etik 28ra	getxokirolak.getxo.eus
BIZARRA LEPOAN EUSKARA ELKARTEA	Udaleku Irekiak	Ekainaren 21etik uztailearen 23ra (hiru txandatan)	5-12 urteak 2009 eta 2016 (biak barne) urteen artean jaiotakoak.	Hiru prezio ezberdin (kontsultatu)	Euskara	Maiatza ON LINE	www.bizarralepoan.eus 94 491 03 87 info@bizarralepoan.eus
UDAL EUSKALTEGIA	Euskara ikastaro trinkoak	Uztailan eta irailan	16 urtetik aurrera		Euskara	Ekainaren 21etik aurrera	euskaltegi@getxo.eus 944646299
URIBE KOSTA AEK	Udako ikastaro trinkoak	Uztailaren 1tik 28ra Irailaren 6tik 31ra	16 urtetik aurrera	173€	Euskara	Ekainaren 30era	944304734 lauaxeta@aeak.eus www.aek.eus
IKASTOLEN ELKARTEA	Udaleku Irekiak	Ekainaren 21etik aurrera	3-8 urte	Ikastolan galdetu	Euskara	Ikastolan galdetu	zirimola@ehi.ikastola.eus 94336937
KIROLETAN SPORT	Multikirola campusa Gobela kiroldegia eta Romo HI Basket campusa %100 Gobela kiroldegia eta Romo HI	Ekainaren 21etik Uztailearen 30era	3-14 urte 6-14 urte	30€ - 550€	Euskara eta gaztelania	Maiatzaren 1etik Ekainaren 14ra	kiroletan sport 94 608 59 33 Igor 662 940 436 igor.i@kiroletansport.info www.kiroletansport.com kiroletan sport 94 608 59 33 Fran 657 77 35 23 getxosaski@gmail.com admin@kiroletansport.info www.kiroletansport.com
ZIRRI MARRA	Arte Tailerrak	Ekainaren 21etik irailaren 3ra	2006-2017 (biak barne)	Asteko 85€ (deskontuak kontsultatu)	Euskara	Irekita	zirrimarrate@gmail.com 94 44916186

JARDUERA GUZTIAK PANDEMIAGATIK EZARRITAKO OSASUN-BALDINTZEN MENDE DAUDE
 UDAKO AISIALDIRAKO EKITALDI ESKAINTZARI BURUZKO ARGIBIDE GEHIAGO: GAZTE BULEGOA (ALGORTAKO ETORBIDEA, 98). TEL: 94 466 0353
gaztebulegoa@getxo.eus